

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

2025eko abuztuaren 12ko ebazpena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Arabako lurralde ordezkarirena, Asociación de Imagen Personal de Álava-Arabako Irudi Pertsonalaren Elkartea empresa-elkartearen legezko ordezkaritza duten kargudunak izendatzeko eta karguak berritzeko dokumentazioa gordailutu dadila agintzen duena. (Gordailuaren kodea: 01/0/00032)

Sindikatu eta Enpresa Erakundeen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espediente hasi da Asociación de Imagen Personal de Álava-Arabako Irudi Pertsonalaren Elkartea empresa-elkartearen legezko ordezkaritza duten kargudunak izendatzeko eta karguak berritzeko erabakiaren gordailua dela eta. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

Aurrekariak

Lehenengoa. Karguen berriztapena gordailutzeko dokumentazioa jaso da 2025eko uztailak 16an. Honako agiri hauek dira:

1. Karguak gordailutzeko eskaera, izendatutako pertsonak egina.
 2. Estatutuetan ezarritako hautaketa-arauei jarraituz 2025eko uztailaren 10ean hartutako erabakiaren akta/ziurtagiria, datu hauekin:
 - a) Kargudunen izen-deiturak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta erakundearen barruan daukaten kargua.
 - b) Izendapenaren eguna, berrespena eta titularren onarpena.
- Egitate horiei zuzenbideko honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa. Sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi ematen dio Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 18.2 i artikuluan.

Bigarrena. Sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretua aplikatuta, bidezkoa da elkarteko karguak gordailutu daitezen erabakitzea.

Hirugarrena. Gordailutzeko aurkeztu den dokumentazioa aztertuta, zuzenbidezkoa dela egiaztatu da eta, horrenbestez, bidezkoa da gordailutzeko onartzea Asociación de Imagen Personal de Álava-Arabako Irudi Pertsonalaren Elkartea enpresa-elkartearen legezko ordezkaritza duten kargudunak izendatzeko eta karguak berritzeko erabakia.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau

Ebazten dut

Lehenengoa. Enpresa-elkartearen legezko ordezkariak izendatzeko dokumentazioari dagokion dokumentazioa gordailutzeko agintzea.

Bigarrena. Ebazpen honen aurka egin daiteke Arabako lan arloko epaitegiaren aurrean, Lan arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean (2011ko urriaren 11ko EAO) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 12a

Arabako lurralde ordezkaria
IBON LOPEZ ALDAZ